


ANDONI AGIRREZABALA IZAGIRRE



ZELAIAREN BILA



narratiba

erein

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2026ko urrian

Azalaren diseinua eta maketazioa:

Ivan Landa | Erein

© Andoni Agirrezabala Izagirre

© EREIN. Donostia 2026

ISBN: 978-84-1093-055-1

L. G.: D 905-2026

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu


Zubillaga industrialdea 9

20560 Oñati


T 943 78 33 09

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



ANDONI AGIRREZABALA IZAGIRRE



ZELAIAREN BILA

*Aitona-amona, guraso,
izeba-osaba eta lehengusuei.*

*Abuztuaren 15ean.
50 urte lehenago.*

Zentraleko eraikin altuak, grisak eta aspaldiko denboran hutsak –ia hutsak– zaindari lotien moduan altxatzen ziren Arelusko mendebaldean. Herriari bizkarra emanda begiratzeko zioten almazenen eremuari, zeina muino baten ondoan zabaltzen baitzen horizonte urruneraino. Han, gau-errezelak bilduta, agertu zen goritasuna. Su txiki eta isil bat zirudien, ez poxpoloarena baino handiagoa. Eta halaxe zitekeen igortzen ez balu intentzio maltzurkeko bero hori.

Neska ikaratuak burua atera zuen ezkaratzetik; ez zebilen inor. Motxila hartu eta kalean gora abiatu zen korrika. Ez zuen inola ere eraikin altuen –oso altuen– eta grisaren –oso grisaren– ondotik aldendu nahi. Dardarka zeuzkan izterrak, zabuka sabeleko txitxiak; oinak, lokartu antzean, lurrera lotzen zitzaizkion. Eta neska ikaratuak are larritzen zuen horrek, babesgabe sentiarazten; txoritxo nola –txoritxo gaixoa, txoritxo eria, txoritxo hego motza– katua datorela sumatzen duenean.

Ondoko ezkaratzean gorde zen berriro. Handik, goritasuna halo laranja ahul bat zen almazenen gainean. Bidexkak almazenen artean behar zuen, bidexka estu eta bihurriak,

kalea gurutzatu eta hurrena; ez zen, ordea, tutik bereizten hain gau itxi halakoan. Bizikleta hartuko zuen langara joateko. Eta handik, aurrera; eta ondoren, gora, eta gora... Zain zeukan zelaia.

Ezkaratzaren babesetik irteteko adorea baino ez zitzaion falta. Arnasestu eta minzurri artean, dudaren mamuak hots egin zion. Ateko kristala ostikoz bota eta berriz eraikinetan sartzen bazen? Ziur irits zitekeela bere gordelekura ganbare-tako pasabideetatik. Edo beste edozein zokotara, eta atear, leihoak eta zulo guztiak itxi, eta han egon dena pasatzen zen bitartean. Janaria aurkituko zuen nonbait. Eta ura, eta botikak.

Halako oinazea zuen bihotz-arimetan... Baina handiagoa zen ikara. Ikara ziona jazarleari. Beheko bihurgune gaiztoetan agertu zenean, eldarnioak jota, zirrara hotz batek nahasi zion barrena. Jarraian, tristura sakon bat ere sentitu zuen. Oihu itoa egin eta korrika sartu zen almazenetara.

* * *

Momentu hartan norbait balego eraikin altu eta grisetako balkoi batetik kalera begira, ez zen berehala jabetuko gertatzen ari zenaz. Ezta norbanako hori oraindik jaio gabe zegoen Kedar balitz ere. Kedar Garmendia. Delako Kedar horrek, bere teleskopioaren okularretik Arelusko zeru-gaina miatzen zuen bitartean... edo miatu nahi zuen bitartean, hobeto esanda, azkenaldian ezin baitzen ezer ikusi zentralaren goritasun arraio horrekin, zeinak gau osoan irauten baitzuen maindire fin baten gisa, eta eguna joan eta etorri are indartsuago egiten zen ia eguzki txiki bat imitatzearaino,

eta horrek ederki amorratzen zuen Kedar, bai baitzekien –liburuagatik, bere liburu sekretu eta kutunagatik– areagotu egingo zela goritasuna gaua izarrik gabe utzi arte; eta amorrua zentzua nahasten hasten zitzaion, zerbait egin behar zuela esaten, suntsitu, almazenekin batera, norbaitek goitik behera leher zitzaola bonba batekin, *boom!*, edo ostikoka berdin zitzaiola nola, baina dena txikitu zezatela faborez garrasika erregutu ere egin izan zuen ero baten moduan balkoian zutik jarrita. Inork ez zion entzuten eraikin altu gris eta ia hutsetan, eta ez ziren oihartzun bakartiez harago moldatzen Kedarren jenio eta asmo txarrak.

Bada, delako Kedar Garmendiak, urte mordo bat beranduago nazkatu arte egingo zuen antzean, gau hartan ere kalekkan behera –oso behera– teleskopioarekin begiratu izan balu, ez zukeen andre ikaraturik ikusiko, ez bere arnasesturik hautemango; gehienez ere puntutxo bat, inurri baten tamainakoa, almazenen bihurtunean.

* * *

Neska ikaratuak atzera begiratu zuen begiak ilargi. Jazarlea geroz eta gertuago zeukan, ja almazenen sarreran, berrogei metrora. Izkina batean zuen bizikleta. Heldulekuari ezin eutsi zebilen herioaren erruz. Garrasi egin zuen airera. Hogeia pausora zeukan. Almazenen eremua sasi-ordeka zen muinoaren aldamenean. Aldapa txiki bat jaitsi eta metroak hartu zizkion. Aldapan gora, ia gelditu ere egin zen. Jazarlea, jabetuta, korrika hasi zitzaion. Andreak intzirika eragin zien pedalei, eta ondoren maldan behera urrundu, eta gero berriz gora eta horrela.

Buruko hots txiki batek esaten zion nola iritsi ziren puntu hartaraino. Nola egun batean hainbeste maite izan zuen pertsonak ez zion orain joaten uzten.

Aldapa handienaren gainera iritsi zenean, aurrez aurre agertu zitzaion zentralaren aitzina nagusia, eta arimaren sakonean sentitu zuen gauza hura gaiztakeriaren irudia zela eta azaletik igortzen zuen goritasunak denon bihotzak erre-tzea besterik ez zuela nahi. Jazarlearengana biratu eta errukiaren dirdira doi bat antzeman zion. Motxilatik heldu eta kendu zion jazarleak. Baina neska ikaratua, azken ahalegi-nean, aldapan behera aldendu zen ziztuan.

Nahigabeak hartuta iritsi zen langara, jazarlea igaro ezin zitekeen lurraldera. Zelaiaren oroimenak lagundu zion mendi-bidean gora, eta begiak bete-bete eginda pentsatu zuen agian egunen batean dena bere onera itzuliko zela.

Langatik behatu zuen jazarleak neska ikaratuaren joana. Eta saminezko oihu batean bildu zituen bere oinaze ikaragarriak.

GOÑI

Elezaharrak dioenez, antzina ba omen zen Goñierrin Teodosio izeneko zaldun bat, egindako okerraz damuturik eskuoinak lotuta ibili zena kateak puskatu zitzaizkion arte.

Goñiren barealdi misteriotsua

1

Mendilerroak gaua urratu zuen eta gorriminez jantzi zen horizontea. Goñik ohean agonduta ikusi zuen guztia. Ekialdeko errainuek agerian utzi zuten logela; armairu txiki bat, ohea eta mesanotxea besterik ez zen. Ordura arte beltzak ziren hormetan, irudi dantzariak zebiltzan orain aingerutxo alaien itxurakoak.

Gezurra zirudien une bat atzera kanpoan ere dena iluna izatea. Auzo-Ederreko kale estuek irudi siniestroak zituzten,

eta Haran Bitxiak, muinoaren zoko hartan, tumulu multzo zahar bat ematen zuen. Egunsentiarekin dena aldatu zen, orde. Irudi siniestroak palmondo bilakatu ziren eta tumuluak Haraneko etxetxoan teilatu borobil. Haran Bitxia herrigunetik mugatzen zuen harresi aldaberari errubiaren distira zerion.

Barealdia bat-batean erne zitzaion. Sekula ez zuen hala-korik izan. Are gutxiago azkenaldian, damu handi batekin bizi baitzen.

Barneko susmo batek esaten zion bera izan zela; arreba-ren kontua zela guztia. Ametsetan agertzen zitzaion. Beti era berean, beti zelaian. Arreba, ama eta hirurak. Ondo akordatzzen zen egun hartaz. Malkoz bete zitzaizkion begiak.

Mendilerroko zerua erabat sutu zen jarraian. Hormetako aingeruak azken dantzan zebiltzan, jira eta bira eta kantari.

2

Argiak beren lekuetara itzultzean, jantzi eta kalera jaitsi zen Goñi. Ez zen inorekin topatu zazpigarrenetik beheko solairura. Langile bat iruditu zitzaion sukaldeen pasilloan, baina beste inoren arrastorik ez zahar-egoitza osoan. Kanean ere ez zegoen inor. Isiltasun erabatekoa. Errepidea gurutzatu eta Auzo-Ederreko paseoan abiatu zen, hegoaldeko erreka aldera.

Jendea garaiz mugitzen zen Arelusen. Ez ziren asko herrian. Are azkenaldiko desagerpenekin. Irauten zute-nek eguzki-ordu jasangarri gutxi zituzten kanean ibiltzeko.

Eskerrak goizetik eguerdira itzala izaten zuten eta gaueko epeltasunak pixka batez eusten zion. Goizeko itzala Haran-muinoak ematen zion herriari. Horrela, paseoa lasai antzean egin zitekeen, ordu batean astroa muinoaren gainetik jotzen hasten zen arte. Arratsalde ere tartetxo bat izaten zuten: eguzkia bostak aldera beste muinoaren atzean gorde eta itzala etortzen baitzen berriz. Itzalarena eta muinoena hobeto ulertzeko, nahikoa zen Arelus mapan kokatzen jakitea.

Iparreko Lautadako errepidetik zetorrenak, Kapitaletik, adibidez, hegoaldera ailegatu ahala ikusiko zukeen momentu batean erliebe lau-laua zimurtzen-edo hasten zela. Bada, zimur horiek muinoak ziren, eta lehenengoa igo, jaitsi eta pare-parean, beste bi muino zeuden ondoz ondo. Ekialdekoa zen Haran-muino. Mendebaldekoa, Zentral-muino. Bata kareharritzkoa, bestea hareharritzkoa. Eta biak ihar-iharrak, ia landarerik gabeak, lautadaren antzeko; herrialdearen gehiengoa bezala. Bi muinoen erdian, sasiordeka batean, zegoen Arelus.

Goizeko airea maindire epel fin bat zen jada. Azalean nabaritzen zenuen, eta, arnasa fuerte samar hartuz gero, sudurretik ere sartuko zitzaizun. Sentsazio hori atsegina zen laster etorriko zenaren ondoan. Bederatziak aldera beroa handitzen eta airea pisutzen zen pixkanaka, eta hamabieta-rako jasanezina zitzaien. Baina ez zen beroa orain Goñiren ardura nagusia, barealdi misterioetsua baizik.

Sabelaren oinean nabaritzen zuen kilima txikiak eginenez. Zer ote zen hura, arkanbele txiki baten eran bueltaka. Benetan zen sentipen ona, aspaldiko onena; oso litekeena zen bere bizialdikoa ere izatea. Eta arraro samar sentiarazten zuen aldi berean, oso arrotza zitzaion-eta. Hain arrotza

ere, errezeloa izan baitzuen Auzo-Ederreko palmondoetatik barrena zihoala.

Herriko lekurik dotoreena izan zen Auzo-Eder Goñi gaztea zenean. Adosatu pottokoek arelutarren inbidia eragiten zuten, beren logela zabal, terraza eta mendilerrorantz jarritako lorategiekin. Denbora ez zen alferrik pasatu, eta 43ko istiluen ondoren, auzo hura ere husten joan zen. Eguzki izugarriak egin zuen gainerakoa. Palmondoek ahal bezala eusten zioten hosto horituei, eta eskai denak zeuden errauts geruza batez estalirik. Berdin teilatuak eta balkoiak, beirate zulodunak eta zartatutako hormak. Ja ez zen han inor bizi.

Erreka alderako bidea ere antzera zegoen. Zer esanik ez, erreka bera. Goñi umea zela amuarrairak eta lertxunak, uroiloak eta ezkailuak ere ezagutu zituzten. Egun, eskeletoak ziren zuhaitzak; eta emaria, txiza-erreka bat. Berdeberde irauten zuen bakarra erreka bestea aldeko mendilerro urruna zen, gaua urratu zuen zerra berbera; orain jentilen aurpegiak ageri ziren kareharrian, haizeak melena berdeak atzerantz orrazten zizkiela.

Goñik, ordura arte, erreka arteko paisaia triste eta hits hartan aurkitzen zuen bere zoritxarren konplizea. Ikusten, Goñi, esaten zioten zuhaitz eskeletoek, mundua ihartu da, ez zara zu bakarrik, ez dago zereginik. Baina egun hartan ez zuen halakorik hauteman. Arkanbelea han zebilkion zillborpean. Errekako atal bizigabeek distira berezia zuten, begira ari zitzaizkiola iruditzen zitzaion eta ulertzen ziotela nolabait. Errezeloa areagotu zion hark denak. Astigar baten azpiko eserlekuan egon zen guztia ahokatu nahian.

Han nonbait behar zuen zelaiak. Benetan existitzen zen. Ametsa haurtzaroko oroimen bati zegokion. Etxekoek oraindik elkar maite zuten garaian, amak egun-pasa eraman zituen Enara eta biak. Une labur batez pentsatu zuen Goñik ederra zitekeela azkeneko aldiz zelaira igotzea. Belar berde eta lore zuri eta anilen artean, elorri txikiaren ondoan, urru-nean baso-ertzeko zuhaitz handiak haizearekin dantzan, goian ekaitza zekarren zeru iluna... Ezinezkoa zen, alabaina. Hobe zuen ez txoratzea.

Paseoan ez zetorren inor, ezta arratoirik ere. Ze demon-tre, zioen bere artean. Brisa txiki bat bakarrik, eta isiltasun astuna. Eta bero-mihisea.

—Non da hemen jendea! —esan ere egin zuen, ez oso altu badaezpada. Errezeloaren atzetik pentsamendu bat erne zitzaion gero: *Eta hilik banago?*

Agurea are larritu zen ahots bat entzutean; paseoaren amaieratik zekarren brisa leunak. Bere izena, «Goñi... Goñi...» esaten al zuen?

Hilik ala erotuta? Horrek esplikatuko zukeen barealdia-rena, isiltasunarena eta guztia. *Purgatorioan egongo naiz.*

Errezorik akordatzan ez, eta aitaren trakets bat esan zuen esturaz. Deiadarka hastekotan izan zen ea norbaitek entzuten zion, baina bazekien purgatorio horretan arima gaiztoak ere izaten zirela, eta ez ote zen haietakoren bat deika ari zitzaiona, eta bixi-bixi abiatu zen paseoan aurrera, adosatu artera. Brisak bere izena zekarren oraindik, «Goñiiii...», jarraian, brisa haize fin bilakatu zen lorategietako eskai iharrak astinduz eta ingurua hauts-lainotuz.

«Hemen, Goñi...» esan zion? Ahotsak entzutea augurio txarra zen oso. Babesa hartu behar zuen segituan.

Adosatu hutsetan zehar, endalarrez bildutako pasabidean iritsi zen plazatxora. Señoritoen plaza deitzen zioten. Adosatuek inguratzen zuten, eta elizarekin elkartzen ziren bukaeran. Zoru osoa marmolezkoa zuen, hautseztatua, azpian lore urrekaren erliebeekin. Eliza txikia zen, azal grisekoa, bi zutabe zituen ate ondoan, gurutze beltza eta marmolaren lore berdinak beirateetan. Gaztea zenetik ez zen bertaratu, 43ko istiluen aurretik.

Barrua hankaz gora zegoen pintada eta garagardo-lata ugertuekin. Akordatu zen berak ere parrandaren bat egin izan zuela Arelusko garai kaotiko haietan. Aldare aurreko eserlekuan jarri zen erretabloari begira. Eserleku horiek ziren ondo jarritako bakarrak, gainerakoak zokoetan pilatuta zeuden.

Ez zuen gogoan nor zen santu edo aingeru serio hori. Ezpataz sastatzen zuen azpiko etsai hagin okerra. Halakoa ote zen deika ari zitzaiona? Errezo egingo zion, zer gerta ere. Belauniko ipini eta esaten hastera zihoala, tximista baten kolpe bortitzak jo zuen buruan. Segidan, kordea galdu eta eserlekuan erori zen.

4

Norbait oso ondoan zeukan esnatu zenean; bere hatsaren kiratsa sentitzen zuen aldika. Minzurri ederra zuen buruan. Lelotuta, begiak ireki zituen. Erasotzailea hain zeukan gertu, sustoz atzeratu baitzen instantean. Goñik berehala eza-gutu zuen.

Joxemanuel eskalea zen. Berari, halere, Joxemanuel esan behar zitzaion. Egun aldrebesa nabari bazenion, On Manuel ere bai, denon mesedetan. Denbora zen ez zuela ikusi; joan eta agertu ibiltzen zen maiz.

—Miraria! —hasi zen eskalea, eskuak burura eramane eta belaunikaldi arraroak egiten—. Bizi da! Barrabas!

Hala ez bazirudien ere, bizitasun ikaragarria baitzeukan, agure bat zen Joxemanuel. Goñi baino zaharragoa. Izango zituen laurogeita bost bat. Ez zekien ziur, ez baitzen berez arelustarra. Eta oso nahasezina zen haren itxura. Jaka beltz eta zahar bera janzten zuen beti. Galtza bakero luzeak eta espartin urratu pareak. Edozeinek esango zukeen gizon hura basatietan basatiena zela. Partxe batek estaltzen zion ezkerreko begia —43ko istiluetan ostu ziotela esaten zuen berak—, eta agerian zuena marroi argia zen, intxaurren kolorekoa. Bekain urdin mardulak okertzen zitzaizkion kopetan, eta bibotea, bekainak bezain ugaria eta urdindua, gehiago zen sastraka bat beste ezer baino. Bestalde, buruko ilea, izaera berekoa izanagatik, belarri ertzetan baino ez zitzaion hazten. Burusoila estaltzeko txapela janzten zuen, eta ez edonola: alde batera, dotore-dotore. Kontraste horrek, hasieran xelebrea iruditu arren, arriskutsuaren tankera egozten zion.

—Piztu egin da! —zioen.

Belaunak lurretik jaso eta atzera-aurrera zebilen, eskuak burura emanez etengabe, koreografia arraro batean.

—Hilen artetik!

Goñi, bitartean, oraindik lelotuta, handik nola irten pentsatzen hasi zen. Izan ere, Joxemanuel eskalea benetan zen arriskutsua. Jende batek, gazteenek agian, sinpatia

modukoa izango zioten, edo gizajo bat bezala tratatuko zuten Haran-muinoko kobazuloan bizitzeagatik, eta barrezka lehertuko ziren norbaitek txoriaren istorioa enegarren aldiz kontatzen zienean. Goñi nahikoa bizi izan zen jakiteko gizon harekin kontuz ibili behar zela.

Buruko odola garbitzen ari zela behatu zion berriz eska-leak. Egonezina, antza, joana zitzaion; zorrotza zuen jarrera. Atzera abiatu zen bere postu ezkutura Goñiri bizkarra ematen. Sakristiaren ondoan hankaz gora pilatutako eserlekuen artean zuen gordelekua; mantak, kartoia eta poltsak ageri ziren.

Hanka jaso eta alde egiteko unea zela pentsatuko du norbaitek. Baina Goñik zuhur jokatu zuen. Joxemanuel azterka ari zitzaion.

—Hil ninduzula uste nuen, Joxemanuel.

—Bai? Ja!

Goñik burua ukitu zuen. Agortua zen odol-isuria.

—Ederrak dituk hik ateraldiak. Haizen gizon estudiantuarekin, hori gutxienez jakin behar huke.

—Zer gertatu zait?

—Gaztako galanta eman diadala.

—Zergatik, ba?

Elizako beirateek damurik gabe salatzen zuten denboraren joana. Erlojuak 12:42 zioen. Behartuta, lelotasuna joaten hasi zitzaion. Ez zeukan denborarik. Beroa oso nabaria zen. Mugitu behar zuen zahar-etxera iristeko. Eskalea bere postutik atera eta gerturatzen hasi zitzaion. Eraso egingo ote zion? Begia majo zabalduz, atzera hasi zen salto eta ujuka.

—Barrabas! Bizi da! Piztu egin da!

Goñik bazekien bere erantzunak, alegia, ez ikusiarena egin ez izanak, biziki poztu zuela eskalea. Mundu guztiak itzuri egiten zion, eta barru-barruan sufritzen zuen. Bazen gizon bitxi haren bihotzean ontasunezko barrunbe bat.

Bozkarioak hartua zuen Joxemanuel, eta isildu gabe atzera-aurrera zebilen elizan.

—Joxemanuel! —saiatu zen Goñi, eserlekutik altxatuz. Hark ez zion entzuten. Jenioz jarri behar izan zuen hurrengoan.

—Barrabas! —esan zion Goñik.

Joxemanuel instantean gelditu zen. Belarriak tente jarraitu zion deiaren oihartzunari. Goñi, senak esanda, eserlekuaren atzean jarri zen. Eskaleak parez pare begiratu zion.

—Barrabas? —ahots xaloz—. Non?

Une batetik bestera, basatiaren betartea ume ikaratiarena bihurtu zitzaion. Beldurrak okertzen zizkion bekainak. Makurtuta bezala, elizako inguru guztia aztertzen hasi zen.

—Non dago, Goñi? —antxumetxoarena zen bere ahotsa.

—Inon ez, Joxemanuel —Goñik, lasai zedin.

—Seguru?

—Bai, egon lasai.

—Gezurrik ez, e!

—Ez dagoela ba inor.

Negarguraz dardarka mugitu zitzaion beheko ezpaina. Eliz atarira joan zen oso kontuz eta astiro.

—Nora zoaz, Joxemanuel.

Plazara atera zuen burua. Jarraian, aldarera bueltatu zen.

—Lasai.

Eskaleak erretabloaren gaineko usoari eskaini zion arretra. Ondora etorri zitzaion Goñi.

—Zergatik jo nauzu?

Joxemanuelek ezulertuarena egin zuen hasieran. Akordatu balitz bezala, bekainak jaso zituen jarraian.

—A! Konfunditu egin nauk. Barkatu. Izan ere...

Umearen antzera jokatu zuen berriro, errietan ari zitzaiolakoan; burua sorbalden artean gordez eta ezpaina moko batean itxiz. Begiak lurrean josi zituen, eta bizarrari hazka eserleku artean gotortu zen. Goñi, atzetik. Liburu bat besarkatzen zuen kartoietan.

—Bueno, kontatuko didazu besteren batean —moztu zion Goñik, ate aldera joz—. Orain banoa, laurden gutxietara doa eta...

Eskaleak ez zuen azkar soltatuko.

—Zigarrorik ba al duk?

—Ez.

Eskua manta artean zebilkien.

—Nik bai, ba.

Kea elizan, intsentsu ustela.

—Atzo ikusi egin nian.

—Nor?

Isilik geratu zen. Goñi gerturatu zedin nahi zuen.

—Ikusi, nor?

—Eta ez erdizka, ondo gainera.

—Esan ezazu.

Ez zion erantzuten Joxemanuelek. Bere arreeta elizatik kanpo zegoen, beldur bati josita.

—Eguraldia gaiztotzen hasia duk.

—Aspaldian.

—Eta eguraldi honekin ez duk...

Goñi konturatzen hasi zen. Jarraitzen utzi zion.

—...txoririk etortzen...

Eskaleak dardarari ekin zion berriz.

—Barrabas ikusi al duzu? —galdetu zion Goñik.

Hura entzun eta uzkur-uzkur egin zuen gorputza eta oker-oket eskuetako liburua. Baiezkoa esan zion burua-
rekin:

—Entzun! Eta gero, ikusi. Bere bibote beltz eta begi sartu horiek. Atzo eguerdian izan zuan, nire terrazan nengoela. Haizearen txistuarekin entzun nian musika itsusi hori, eta hotzikara eragin zidaan. Eta soinu hari ihesi jaitsi ninduan Zahagiaren plazara... eta han kartela ikusi...

—Ze kartel?

—Ez al haiz enteratu... —Joxemanuelek, ikaraz... Espabila hadi, Goñi... Eta hango ezkaratz batean zegoan bibotedun gaiztoa... Eta musika entzuten zuan, eta arineketan alde egin nian erreka aldera... Ez diat uste leku hau ezagun duenik. Leku hau babesa duk. Ezta, Goñi?

—Oso babesa, bai.

—Ez nauk guztiz fio. Hi sartu haizenean... ikara nire jabe egin duk. Ziur ez duala... hor kanpoan... ikusi... ezta?

Gizona lasaitzen jardun zuen Goñik tarte batez, esanez ez zuela berak ezer arrarorik hauteman, hura oso leku gordea zela, ezezaguna gehientzat, eta kanpoan ez zela brisa besterik entzuten.

Mundu guztiak zekien Joxemanuelek beldurra ziola Barrabas deitzen zion norbaiti. Batzuek zioten ez zela existitzen. Besteek, mendeko bat zela, lurpean bizi zena. Mendekoak eguzkiak burua nahastutako pertsona arriskutsuak ziren.

—Txori madarikatu hori...

Hizketan lasaiago hasi zen.

—Momentu baterako hartu nian kaiolatik, Goñi. Intentzio txarrik gabe, sinetsidak. Gero bueltatzeko asmoz. Nola jakin behar nian hegoak jaso eta alde egingo zuenik... Barrabas bihozgabea duk, eta ez dik etsiko ordaina eman arte.

Istorio zinez ezaguna zen denentzat. Joxemanuelek, zentraleko langilea zela, nagusiaren txori bat askatu omen zuen bere bulegoko kaiolatik. Txori hura nagusiaren mai-teena izanik, Joxemanuel ez zen zentralera gehiago azaldu. Nagusi haserretuak eskalea harrapa zezan agindu zion bere mendeko borrareroari. Borrero hori omen zen Barrabas.

Joxemanuelek segitu egiten zuen.

—Afaltzen ari ninduan, goiz afaltzen baitiat nik euro-parren eran, ahal bada, eta ez diat begira egon eta jan besterik egiten gautzen duen arte. Baina oraingo liburua ezin askatu nabilek eta harekin nengoan... Hara! Hemen zeukaat! Ezin irakurtzeari utzi eta afaltzea ere ahaztu. Irrikitan nagok norbaitekin komentatzeko.

Esku artean txurro egindako liburua erakutsi zion. Goñik ez zuen ezagun.

—Ja! Hik irakurriko huen igual! Ederra abentura. Zerri galantak beste lekuetan ere bazeudek. Irakurri duk, Goñi? Egiaz pasatu ote zuan?

Goñik ezin nahita ere gezurrik esan. Joxemanuel serio jarri zen. Goñi gizon jantzizat baitzuen unibertsitatera joan zelako. Manta artetik beste liburu bat atera zuen.

—Eta hau?

Goñik ezetz. Poltsakada bat liburu zeukan.

—Eta hau? —Beste bat erakutsiz—: Edo hau?

Goñiren ezezko bakoitzean, are gehiago okertzen zen Joxemanuelen betartea.

—Ezagutu bai, baina...

—Ezagutu... Irakurri egin behar dira! —amorratu zen Joxemanuel.

—Ez gaia aldatu —moztu zion Goñik. Nazkatzen hasia zen—. Joan egin behar dut.

Joxemanuelek kasketa harrapatu zuen.

—Ez!

—Adarra jotzen?

—Hau irakurri baduk, joan haiteke.

Goñik ez zion tankerarik eman. Eskaleak jenio biziz arakatu zuen liburuen zakua eta aurrenekoa heldu bezalaxe bota egin zion. Ia jo zuen berriro buruan. Liburu zahar eta txiki bat zen. Hura ezagutzen zuen.

5

Zelaiaren bila zen izenburua. Goñik arnasari eutsiz aztertu zuen azaleko zelaiaren irudia. Ireki eta hutsik zegoen. Bi izen agertzen ziren lehenengo orrian: Goñirena eta bere arreba Enararena.

Liburu hura zelaitik bueltan egin zuten, umeak zirela, handitzen zirenean idazteko asmoz. Ez zuen ulertzen nola iritsi zen eskalearengana. Zaborretatik, akaso.

—Ekarri bueltan —agindu zion eskaleak.

Goñik ez zuen asmorik.

—Nondik atera duzu hau?

—Goñi... —hasi zitzaion gordelekutik—, ekar ezak...

Goñi atzeraka ibiltzen hasi zen.

—Nora hoa, alproja hori...

—Laurden gutxiak jo dute, zahar-etxea urrun dago eta...

—Buelatu liburua.

—Utzi pixka batean...

—Emateko!

—Non aurkitu duzu!

Joxemanuelengan suminaren aztarna agertzen hasi zen.
Goñi ere artega zegoen.

—Alproja hori! Lapurra!

Eskalea konturatu zen ihes egiteko zorian zuela. Amorruren amorruz altxatzen hasi zen eserlekuen atzetik. Goñi beldurtu zen agure hura hain arin mugitzen ikusita, eta bitan pentsatu gabe luzatu zuen hatza aldarera.

—E! —esan zion, ausardiaz—. Zein da hori?

Eskaleak errezeloz entzun zion.

—Kontuz, Joxemanuel! Barrabas!

Buelta eman bezain pronto aditu zituen Goñiren korrikako pausoak elizako aterantz. Amarruaz ohartu eta garra-sika abiatu zitzaion atzetik. Ordurako Goñi plazaren erdian zegoen, marmol zuriaren gainean arnasestuka.

6

Eskalea ez zela elizatik hola eta hola aterako aski ezagun zuen Goñik. Halere, korrika txikian jarraitu zuen zahar-etxe aldera, harik eta itzaletara iritsi zen arte.

Zortzi minutu falta ziren eguzki izugarria Haran-muinoren gainetik ateratzeko. Etxea ordu laurdenera zeukan.

Estualdiak betetzen zion gorputza. Lasaitzen saiatu zen zilborreko arkanbeleari jaramon eginez. Zentzuak esan zion garbitegiko sotoa zela irtenbide bakarra. Ondoan zegoen, Auzo-Ederretik gora herrigunerantz, adosatu artetik irten eta parkeko etxabe batean.

Bazekien garbitegiko sotoak lurpeko pasabide batekin lotura zuela. Pasabideak propio eginda zeuden ordukoa bezalakako estualdietarako. Ez zekien garbitegikoa justu nora zihoan, baina igoko ote zen berriz lurgainera, Zahagiaren plazara-edo. Zabalaenea tabernan babestu zitekeen, agian. Ez zeukan beste aukerarik, ez bazuen eguzkipean erreta bukatu nahi.

Garbitegia gela txiki bat zen sarreran koloretako karte-lekin. Sotoetarako atea itxita zegoen. Birao egin zuen ozenki. Garbitegiko atea biltzen hasi zen: igual aguanta zezakeen lehorgailuaren barruan... Han sartu nahi, eta ezin kabitu. Beroa jasanezina zen. Aireak erre egiten zuen begietan eta ahoan, arnasbideetan.

Azken unea iritsi zitzaiolakoan goiz hartan hirugarren aldiz, arkanbelearen kilimetan ipini zuen arreta. Eta berriz entzun zuen bere izenaren deia. «Goñi...».

Orain bai, heldu da nire ordua, pentsatu zuen, lehorgailuaren barruan.

Ahotsa are ozenago entzun zezakeen. Liburua bularraren kontra estutu eta arrebari barkamena eskatzen ari zela, norbaitek hankatik tira zion. Deabrua edo Joxemanuel, auskalo nor zen, baina ez zuen berehala aterako. Atximurra egin behar izan zion tiratzaileak.

Azkenean, ez deabru ez eskale. Panari zen, izerditan eta gorri-gorri, bere betaurreko ilun eta biserarekin.

—Erotu egin al gara! —esaten zion.

Panarik bazuen atearen giltzarik. Kanpaiak joka hastean sartu ziren sotoan, eta itxi zuten zanpatekoz. Erdi ilunetan gelditu ziren bi agure lagunak arnasestuka. Panarik besarkada gogorra eman zion.

—Ni deika, eta hi ihesi! Hau ikara pasatu dudana... hi ere galtzekoa!

Aurrerago, freskura pittin bat hasi zenean, zergatia galdetu zion Goñik, eta Panariren aurpegia zurbildu zen.

—Ostiralean —esan zion, lurrera begira—, Joakin bueltatu delako berria iritsi zitzaiguan.

Gezi hotz batek zeharkatu zuen Goñi izen hori entzutean.

—Errotan zegoela esan zitean. Sagardo berriarekin etorria zela! Eta besteeek sagardoa entzun eta han joan zituan itsututa. —Listua irentsi zuen—. Nik esan nieran oso arraroa zela, nola etorriko zen Joakin, berrogei urtez haren berririk izan ez dugunean... Baina, alferrik, Goñi. Errotara jaitsi zituan eta ez dituk ordutik itzuli.